

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA


Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Laugarren urtea — Pamplona, Junio 1969 — Garagarrilla. - Iruña. - 40 gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

BESTEAK BEZALA



nahi izan du noizbait. Eta sagarrak ez du barneko arra hobereena.

Halare, gaurko auzia garratzago da. 1965-an zan Madrileko ta bion hartu-emanak asi zirena. Naparroak bereak ditu bere eskubideak; ez inork emanak. 'Pribilejioz' mintzatzea limosnatxo aritzea deritzaigu; eta ez gera inoiz kaleko eskale izanak. Gaur Madrilen erabaki nahi dena ez da diru kontua; hutsa da gure diru gorabera gobernuaren kutxa ondo gabetan. Gure nortasuna zebillen zalantzan.

Ez hori bakarrik; Naparroko auzia Espainiako jende guziak beren buruak aurrean jartzeko erabiliko zuten ispilua izango zan, baldin erabaki balitz. Zentralismo derizaion barnerantzeko indarra, eta eskualdekako 'regionalismoa' sartuak dira jokuan. Zerekin aterako ziren orai Madrilen? Eta ez dute erabaki bat hartu nahi izan. Naparroa zegon bezala, ikutu gabe nahi lukete utzi. Ez atzera eta ez aurrera, hortan daude Madrillgo eta gure alkar-izketak.

Ixiltasunik aundienean eremanak dira gauzak. Ez gera ixiltasun horren aldekoak; lapurreta kontua zirudien. Baño, nunbait ala komeni zan, eta era hortan joan dira orai arte. Mutuaren fedea emana ziguten bi alderdiak. Orai ez. Mihiren lokarriak hausten asi dira, eta guretako begiramendu aundirik gabe hautsi ere. Diru aldetik dagola koxka, desberdintasun aundia dugula, eta gu *gerala, gu* (gure diputaduak esan nahi dugun) konponketarik nahi ez dugunak. Gezurra.

Nahi gabe, sagu urtean katakume kontua heldu zaigu gogora. Gela itxian hala erabiltzen dute katuek atzaparretan duten sagua: utzi ta bildu, berek nahi duten soka-dantzan. Naparroko Diputazioak ez du ongi ikusten jokabide hau eta hala adierazi du agirian. Ixilik behar ba zen, ixilik egon, eta ez inor zapaldu, sagu eta katuaren jokuan.

Azi gaistoz ez gera gaizki. Eta ikusten dugunez Eskualerrian ere itsasia da azi hori. Bazkal aurrean entzuten ginuena: "*zer Fuero, eta zer... Zuek besteak bezala*". Baño, "*nor bezala?*".

Ezteietako axuriaren ondotik kantuz asi zan jendea; eskualdun kantutan. Gure sasi-jakintxua ixildu zan. Beste norbaitek kantuen itzulpena esaten zion belarrira. Etezkieen eskuaraz. Nungoa ote zan nahi nuke nik orai jakin, hura bezala ez izateko beintzat.

SAGI

«Nere Lurraldetik» («De mi pais»)

Egilea: MIGEL DE UNAMUNO

Era ugari ta ezberdiñean idatzi ta itz egin da gizon aipatu oni buruz. Bai alde, bai aurka... Zeuzkan onbide ta akatsak ondo arrotuak izan dira baretasunetik, ondorengoen epaijanari biurtuaz. Lore txorta artzera doan garailea batzuetan, auzi alkira daramaten gaizkillearen antzera bestetan.

Nik badakit orritxo ontan ez di-

zuetela berrikirik esango; laburtasunari dagokion begirakunez, soil-soilik, Bilboko seme onek, gazte denboran, bizitzako udaberrian idatzitako liburu onen esanaia, mamia aztertu ta zueri azaltzera nator. Jakiña nik, euskerara itzultzean, Unamunoren itzak indar asko galduko dutela ta biurketa, aldakuntzak ere nozitu bearko dituztela berekin. Ala

ta gutziz ere gogozko izango zaitzue... nere ustez beintzat.

Onela mintzatzen da itzaurrean: —Neretaz «lenbiziko» aberria, esan nai det, begiratze bakarrez ikus dezakeguna, nik Bilbo osoa bere inguruko edozein gallurretik menpetu dezakedan bezala, aurtza-

(6'garren orrialdean jarraitzen du)

Eriotzara darabagu aspaldiko bizia?...

Gure Erria aspaldikoa dala, aspaldikoenetatik, diote iakinetsuek.

Gure dantzak ere aspaldikoak ditugula entzuten dugu noiznai.

Gure izkuntza, mintzaira-lanetan dakitenek diotenez, aspaldikoenetatik omen dugu.

Iakinetsuek erratea ezda aski: guk, gerok, siñetsi behar, gauzak ongi ibiltzekotan.

Egiz siñesten dugulako agertzen ote ditugu iauntzi xahar itxu:ako soñekoekin, aspaldiko gure dantzetara, gutarteko gazte taldeak?

Egiz siñesten dugulako, eta (xaharren-xaharrez) agotan ibiliz suntsitu ezdedin txokoratzen ote dugu aspaldiko gure izkuntza? Kutxean sartu ta ongi zain du, purruskatu ezdedin?

Aspaldiko Erriek, gazte bizi behar dute, gaurko ona onartuz xaharreiak io gabe irauteko.

Aspaldiko dantzak, aldian aldiko iauntzi edo soñekoekin (gaur, oraikeekin) ibili behar du, ibili, soro ta zelaietan, errieta-ko iostalekuetan, guk egiz gurea dugula, dantzan ariz agertzekotz.

Aspaldiko izkuntzak, zauli ta arin, agoz ago, danon artean behar du, guk ez daukagula saltzeko ta maiteki bizirik dabilkigula, ziñez ta egiz nornairi bildurrik gabe adierazteketan.

Aspaldiko dugun gure Erriak, beti gazte behar luke, egunean eguneko on zaizkion berritzeak



bereganatuz. (Bere gauz xaharrek ahantztera utzi gabe, bai, orraigarriak izanezgeroz: baña, kaikua oporrari ta zimitzari bezala gu lengoari bakarrik iosirik egon gabe).

Aspaldikoa dugun Erriaren aspaldiko izkuntza, beti gazte bizi bedi gubaitan, bere ots bai oxen bai ezti ori gure etxe, eliz, lan-tegi, iostaleku, bide, ostate, zelai ta menditan guztion agotatik garbi ateraz, ta guztiok ontasun oberoentatik bat bezala, guretzat eta gure ondokoentzat zainduz, apainduz, aberastuz, edertuz, indartuz, zabalduz.

Amaren soñeko xaharrekin noizean beinka karrikara agertu, ta Ama iltzera uztea, Inauterik lotsagarriena!!!

Gure izkuntza maite duela dakigunakin bakarrik izkuntza ontan mintzatuz, eta bertze guzkiekin emengoak ez bagiaña bezala ariz, nekez eginen diogu onik gure guratsogandik artutako izkuntz urrikalgarri oni!!!

Gure dantzak obekienik dantzaten dituztenei noizean beinka sari batzuk emanez bakarrik, sari oiek gutarrek gora dezakete beharbada; baña, gure etxeok, gure errikoek, ez!!!


Gure Erria, gure oiturak, gure izkuntza, aspaldikoak izanik ere, oraikeak izan bitez; betikoak; zahartzera, ezintzera, iltzera gure erruz utzi gabe.

Sortzez, aspaldikoak; izatez eta bizitzaz, oraikeak; irautez, betikoak. Xahartzera utzi, inoiz sekulan!!!

IBARRONDO



DE VISITA POR LESACA




En una de mis últimas visitas al pueblo, me ha sido grato el encuentro con una realidad y dos proyectos muy consoladores.

Merecería la pena menudear el txoko un poco más de tarde en tarde, si cada vez se encontrara uno con estas novedades o similares.

Lo cierto es que nuestra provincia se va despertando y dejan ver algunos frutos de este madurar humano. La mayor transformación que hemos conocido en nuestra tierra ha comenzado por la industrialización, solución vital para evitar la masiva emigración de los navarros, con la consiguiente pérdida en valores humanos y económicos de Navarra.

Y la consecuencia de esta estabilidad y bienestar económico es el despertar profundo de la personalidad navarra, y, partiendo de su historia y volviendo a ella, un nuevo renacer cultural y humanista.

Si la originalidad consiste en dar en el clavo de la idea que todos concordaban —y al dar con la vida oculta en cada una de las conciencias de la masa—, hacer la historia de un pueblo consiste en volver a las fuentes primigenias de donde le viene el ser y la manera de ser propias.



Gure irakurlei

Datorren illean Iruñeko Festak diralako bertako lan-tergiek beren opor egunak artzen dituzte. Gure Errebista argitaratzen duen Inprentak ogei eguneko atsedaldia artuko du.

Hau kontuan arturik, «PRINCIPE DE VIANA»-ren zuzendaritza eramaten dutenek erabaki dute urrengo numerua ezdela illabetekoa izango, bi illabetekoa baizik, hau da Uztaillarena Agorrillarenarekin batean aterako dela.

Beraz eldu den «PRINCIPE DE VIANA» ezdute zuen etxetan oi dan bezelako garaien artuko, baizikan ama-bost egun geroago, Agorrillaren 4 egunetik 11 egunerako asteen.

Izan ongi eta agur bat denei!

La historia de un pueblo nunca puede ser auténtica si se llegan a romper los lazos que le unen al pasado y al origen conocido de su existencia.

Francisco Javier nunca lograría la portentosa hazaña de la India si no hubiera podido pronunciar en su agonía del Océano Indico aquellas frases en euskera, fiel reflejo de continuidad con los usos y costumbres adquiridos en la cuna y mantenidos a lo dimensional de toda su vida azarosa.

Asimismo, si Navarra quiere ser la Navarra auténtica y original, no puede desligarse de su pasado: de su historia y costumbres, de su cultura y personalidad peculiares.

Si los remiendos con tela propia afean los trajes, ni qué decir hay cuánto los remiendos son con paño importado.

Debemos ser amplios y generosos a la hora de recibir préstamos cuando hemos agotado los recursos propios, pero no nos hagamos mendigos y pordioseros al dejar agotar, en la búsqueda de valores regionales, un filón de primera calidad que yace entre olvidos e incomprensiones.


Con esto deseo dejar mi referencia sobre nuestra «Lingua Navarrorum», el euskera, que languidecía y moría, no sé bien si por ignorancia o por pereza; lo más probable por ambas. Y también, por qué no decirlo, por una política mal entendida y peor vivida. Nadie que se precie de español puede despreciar los valores hispánicos, sean de Castilla, Extremadura o Galicia. Lo de España es de todos los españoles. Y lo navarro no lo es menos por ser del norte.

Pero vengamos al motivo de estas líneas. Volvamos a la realidad consoladora. ¿De qué se trata? De que Navarra que iba dejando de ser lo que era, vuelve a ser lo que fue, lo que debe ser y lo que será si nos aplicamos, conscientes de su historia.

Se van multiplicando los centros docentes de todo género y entre ellos, las escuelas vascas, las danzas, el folklore...

¿Afirmaciones gratuitas?

Realidades. Realidades en la Barranca, en el Baztán, en la ca-



pital, en el Bidasoa. Realidad en Lesaca.

¿Por qué aquí? Porque ya es realidad la enseñanza que se imparte a un centenar de niños y niñas. Porque es un proyecto con muchos visos de realidad la enseñanza de nuestra lengua multiseccular en toda la enseñanza primaria. Porque el Ayuntamiento aprobó y apoyó la enseñanza de nuestro folklore a los niños de este núcleo lesacarra.

Vendría quizás no ajeno al caso aquella frase, particular en la construcción pero universal en la práctica: «El conocimiento de un nuevo idioma beneficia extraordinariamente al intelecto y, ese idioma, en cuanto más distante se halle de la lengua que uno posee, tanto más le beneficia».

¿Utopía? ¿Divagación? Realidad.

Enhorabuena. A los que han hecho posible tal intento. Enhorabuena. Se ha abierto el camino. El movimiento se demuestra andando. Aurrera.

ANTHON

(Iruñeko «El Pensamiento Navarro» Egunkaritik artua).



ESKVALERRIKO LEIOA

Euskararen ikasketak Baztan'en

Baztan'go Arizkun erroko «Lamiarrita» auzoko eskoletan euskera irakurrerazten eta izkribitzen asi dira. Baimena erdietsi da eta Bazko ondoko asteen asi ziran ikasketak.

Arizkun, Erratzu eta Azpilkueta'ko eskoletan ere asi beharrak dira laster, eskol-lanak bukatu ondoan egunero ordu erdiko ikastaldietan.

Txistu-Ikasketak Baztan'en

Arizkun'ko Txistulari zintzo eta on den Maurizio Elizalde jaunak Elizondo'n eta Arizkun'go «Lamiarrita» auzoan bi Txistu ikasketa ematen ditu. Bata, lehengoan esan duguna, Elizondo'n, amar aurrekin, asteko bi egunez, eta bestea Lamiarrita'n asteko beste bi egunez, amabi mutikoekin.


Txistu ikasketari buruz Baztan'go «Elkartasuna» bi izkuntzetako errebista ederrean hau da esaten duena:

«Txistularitzak ez du bizitzekorik ematen. Yatekotan, irautekotan, umeak aztekotan, ortaz landara bertze lanetan ari bear. Sarritipie da txistulariari ematen zaiona. Eta, zenbaitzuk dakizuten bezala, sari ori aunditza eskatzen duen txistularia, bein baño geiagotan txistu yotzeko lana galduta gelditu izan da, erri bateko edo berteko buru zenak errien soñu orren beharrik ikusi etzelakoz.

Ala ere, ameslari batzuk agertzen zaizkigu an-emenka gutartean. Ongi ezagutzen duten baten izena aipatzen dut bertze txistularien balioari deus kentzeko asmorik: Gure Maurizio. Txistularitzan langile ona, asperten ezdena, ta bere trebetasuna bertzetara edatu nai duena. Ortaz ari da Lamiarrita'n astearte-ortzegunero amabi —amalau mutikoeri erakusten. Bai Elizondo'n ere, bertze au sailtzo batekin yota yo. Dantzan erakusteko asmotan ere ezda nolanaikoa. Berari esker irauten dute bere ingurukoan arteko dantza zaharrak...

Arizkundar ta inguruko gazte! Txistularitzak ezda bizitzekorik ematen duena Baño euskaldun on, ameslari, errikoia bazera, zoaz Maurizio'rengana erroko ontasun goragagri au zureganatzerara, bere amets zoragarri ok zaganattuz. Eta Txistu soñue entzutean, dantza zaitze, gogotik dantza. Dantzan ari obe duzu, baxo ardo baten ondoan belaunek gogortzen egon baño».

Atseginez lerro hauek «Euskal Orrialdetako honetara» ekarri ditugu nappar guziek txistularitza maite eta gure Txistularirik errikolena den Maurizio Elizalde ezagun dezagun.



ELIZAREN ITZA

Batikanoko II eliz batzar nagusia

Eliza gaurko munduan

Gizonak ez dira noski berdiñak, bat bestea bezin gizon bai ordea, eta nortasun ori zuzenago ta egokiago nabaritu behar du gizar-tean. Batzuk aberastasunean irari, besteak sosik ere gabe, batzuk goien-goienako mallan beti nagusi, aien aztalpean makurturik besteak, lotsagarrikeri nabarmenena duzu ori; ola ez dago zuzen-tasunik, ezta gizar-teko eta erri-arte-ko pakerik.

Gaurko eguneko munduaren furringera eta aldaketa sakona eta bizkorra da, bere buruari bakarrik begiratuz ez ditekete inor gelditu abiadura ortan sartu gabe, bakoitzak, ahal dun eran, lagundu behar die, gizonen bizibidea obetzeko sortzen diren elkarte eta lege berrieri. Zenbaitetik ordea, gezurra dariotela, ahal badute ukatzen diote kontribuzioa, bidezko eta zuzena Estaduari; ez dituzte aintzat artzen gizonen edo abereen osasunerako ateratzen dien legeri edo bideberrian ibiltzekoeri, zabarkeri oiekien beren eta besteren bizia gal-zorian jartzen dutela oharitu gabe.

Gaurko eguneko gizonarentzat, gizar-teko legeak betetzea nai ta naiezkoa da, mundua batutzen ari dan ainean, etxe zulotik atera eta gizonen ona billatzera saiatu behar du, gizar-teko onbide edo birtuteetan eskolatzea, gizon prestu ta jatorra, gizon berria, azpikoaz gora gizadia jasotzeko, Jainko graziaren laguntzarekin.

Naiz bere buruarekin, naiz lagun artekoekin artu-emanak obeki bete ditzan bakoitzak, jakintzan azitzeko bidea erakutsi behar dakio, gaurko eguneko munduan dauden erretxasun berxiakin. Gazteen eziera, batik-bat, zuzendu behar da, gizon eta emakume eskolatuak, ikasiak eta nortasun edo personalidade bete-betekoak sortu behar dira, gaurko giroak gero ta geiago eskatzen duen bezela.

Nortasun orrek eskatzen ditun eginbeharreri, behar bezela erantzuteko, bizi giroak lagundu behar dio bere goi-mallaz jabetzen eta Jainko eta gizonen serbitzurako kemen guztiak ateratzen, ezeren alderdi gabe. Arlotekeri gorrian datzan gizonak, bururik ez dezake jaso eta nai duenik egin ere ez; aberats purrukatua, berriz, geigizko atseginitan murgildurik dabilena, zital eta bereko biurtzen da. Gizon bezela jokatzeko bizitz giro eroso eta egoki bat nai ta naiezkoa da.

Fernando Artola «Bordari»-ren liburu berria

Ondarrabi erroko seme den Fernando Artola Sagarazazu jaunak «Gora intzi» izeneko liburu berri bat argitaratu du. Fernando Artola, izen deituraz baño «Bordari» izengoitiz edo izenordez ezagunago da Euskalerrian.

Poeta, edo olerkari bikaiña izateak fama aundia eman dio gure artean «Bordari» maiteari.

«Gora intzi» liburuaren agertu berria da, Liburu sentikorra eta bere andre zenaren oroipenetan izkribitua. Bere liburuaren izenburuko azpian onela dio: «Gizalargunaren eskeintza». Honekin badakigu dena. Bere emaztearen eriotzak ekarritako sentimendu, oroitzarre eta esanahiak azaltzen ditu gure egilleak liburu honetan.

Salgai dago gure Euskalerriko liburu-dendetan.

Euskal Kantuen berriak

«Zeruko Argia» euskal astekarian leitzen dugunez «Euskal Kantuaren Jaugarren Sariketa» berriz ere atzeratu behar izan dute antolatzaileek baimenak atzeman ezdutelakoz. Xabier Gereño jaunak dio udazkenean egingo dela.

Gure beste aldeko Nappar maitean kantari multzo berri bat agertu da: «Nafartarrak» dauka bere izena multzo honek. Enaut Etxamendi eta Eillande Larralde kantariak osatzen dute. Bere abesti edo kanta ezagunenak: «Otsagabia», «Sarastarra naizela», eta «Kalifornia'ko euskaldunarentzat». Agur bero eta maitekor bat «Nafartarrak» taldeari.

Azpeiti'ko «Txapel» bertsolaria illa

Horain iru aste baditu Azpeiti'n «Txapel» izengoitiz ezaguna zena il zitzaigula irutan ogei ta bost urte zituelarik. Elizarenak eta ehorzetak Maiztaren bigarren egunean izan ziren. Jendetza bildu zan Azpeiti'ko Eliz nagusian illetak ikus eta laguntzeko.

Meza emalea bere semea den Miguel Eizmendi izan zen, amabi apez inguruan zeuzkala, elkarrekiko Meza moduan. Mezaren ofertorioan «Baxarri», Gorrotxategi, Lizaso, Lazkano eta Agirre giputz bertsolariek bertso bana bota zuten «Txapel» bertsolari zahar eta onaren oroimenez. Goian Bego bertsolari zahar maitea.

IKUSLE

Zuazte atunetara

Erriko jaia San Pedro izenian ongi ospatu ondorian, itsasorako dezute deia. Zuazte Jaunaren pakian.

¿Zer du zuentzat itsas'onetxek bere sabelian gordia? Biar bada inoiz baño geiago pillan zillar ta urria.

Baño ametsik ez da egiñ biar. Izan liteke bestela. Ematen dunak uka lezake. Ez deilla izan orrela.

Jun zan urtian gertatu zana: oroitzen zeate aurten. Beragatikan larri zaudete. ta ez da gezurrikan emen.

Atunak leengo urtiak baño askoz gutxiago eman zun. Eta barruan arra gordiak zerbait esan naia bazun.

Jun ziran, bada, gure gizonak ongi ta ongi prestatuak. «Agur, ba, eta ongi ibilli. Ez aztu, ez, Jaungoikuarik»

Atera dira, Lenengo lana, baita egitia arrantzako.

Frainzi uretan saiatzen dira biberuak betetzeko.

Osatze'utenian antxe dijuaz egan uraren gañian. Bat emendikan ta bestia andik itsas zelai zabalian.

Lenbizi saiuk ara ta onea, bazterrak ongi ikusteko. Begi, belarri erne-erniak. Ez daude lo egiteko.

Aurren'agiria onak zirala artu gendun albistia. Pentsatzen gendun gure artian: «Ona itxuraz urtia».

Etortzen ziran gero errira berri on ta pozgarriak. Asiera ona zirudin zala. Ez giñan ametslariak

Berri on aiek egia izanik danentzat onak etziran. Bat edo beste ongi, bai, asi, bañoan etzun segirikan.

«Orrela gauzak segitzen ba'ute, ez degu gauz onarikan. Ez degu aurten eskuratuko atuneren kosterikan».

Lengo galdeerak: ¿Ontzi geiegi? ¿Atunaren igestia? ¿Edo ur otza aurtengo abek? ¿Nundik sortzen da kaltia?

Inork ezertxo ez daki garbi. ¿Nola jakiñ, Jaungoiku ona? Bat eta bestiak badaukazute aundi aundia dan lana.

Batek o bestek kolpe banakak, desberdintasun aundian. Geienak antxe ernegatuta utsik itsas zabalian.

Ontzi azkarra indar aundiak beti abant ibillian, ordaindu biarra galanta dute erretze'uten oliuan.

¿Zenbat egunez girua txarra, zipotz txarrenetakuak. Zenbat eguna oso osuak era batian galduak!

Ikusi gabe eziñ sinistu: egi egiz aspertuak. On askok uko egiñ dizute ta utzi zaituzte urratuak.

Alaere Agorra ta Urri osuetan dutela, arrantza obiak. Bañan eskasa, azkenekiak, osotasuna gabiak.

Kesterak kito egiña dago: juna dago emendikan. «Ez diguzu zuk aurten osatu biar gendumen erdirikan»

Arrantzarik ez. Bizi modua goibeleño da io. ¿Zenbaterano dagon iua. Jaungoiko Jauna, noraño!

Eguneroko ogientzat aña ez badegu irabazten... Irikiko aldu Jaunak ale bat, ez bazaigu aserritzen.

Joaquín ALDAVE



Aurtzaro luzea

Aurtzaro-urtetan aurak egiñari, izena guk eman diegu «aurkeri». Aundien amets ta nekealdieri, «asmakizun, behar, izerdi, naikeri».

Aurak egiten du (arri ta logian) ezponda azkarra, erreka ttipian. Aundiek dakarte, ibai ur-aundian, argi ta beroa, tximist-indarrian.

Aurra asertzen da laguntxo batekin: ezponda, desegin unek, makilekin. Aundiok, burrukan lurreko onekin, berdintsu gabiltza danok alkarrekin.

Aurak, beti nai du garaille atera: ona naike luke bil bere aldera. Aundien artean, pixka gora-bera, negurri berean daukagu afera.

Aurren artean au, noiznai ikusia: bat besten gañetik, denen nagusia. «Aundiaren mene bizi da ttipia!!!» azi geranetan, gure erasia...

Menekoek zerbait, nagusitza-sari, ematen diote aur nagusiari. Aunditu geranok, berdin gera ari; lotsatiak eman lotsagabeari.

Zein-geiagoketan, maiz aski ariak burrukan, ikusiz beltz eta txuriak! Aurren gatazka au darama aiziak: aundien kasailak, bai egiz luziak!

Fildazko pilotaz, eliza-txokuan... larruzko zauliaz, pilota-lekuan... Aundietan, berdin gerta da munduan; menekoa, zolan; goikoa, buruan.

Nork «pix» urrunago, gure mutikoak: arresi gañetik doaz ur beroak. Illargin lenago nor, «politikoak», estutuz, ta ongi, zenbaitzun gogoak.

Aurrentzat merke da ur botatze ori, ez datorkio-ta xaupenik inori. Illargiratzeak, zenbat urre ori xautzen ote digun munduko orori.

Aurak autatzen du gogoan duena, bertzentzat utziaz lanarik zallena. Aundiak beretzat nai luke omena, neke-izerdia izanik bertzena.

Iakiri-nai aundiak dituzte aurtxoak, ermerik belarri eta begitxoak. Aundiok, ustean gu Salomontxoak, itsirik begi ta belarri xuloak.

Gizonak daraman aurtzaro luzea, noizean daukegu aurkeriz bete: iaio giñanean, izan zun astea; eriotz-orduan, bere akitzea.

Irakurle maite; ez artu gaizkian; ez naiz zutaz ari; nitaz bai agian. Zetabean sar, ta ibil-ibilian, ikus nor gelditzen goi eta azpian.

IBARRONDO



P. Fermín IRIGARAY —LARREKO—

idazle zenaren artikulo bat agertzen dugu gure aldizkarian Gregorio MUJICA gipuzkoar idazlariaren hiltzean izkiriatura.

IN MEMORIAM

Muxika Gregorio jaun zenari zordun naiz; eta zor diotana ordaintzeko ARGIA-ra eldu naiz.

Bihotzez maite nuen, Euskalerrriaren maitale andienetarik izan delakotz. Euskalerrriak seme zintzorik izan badu, hura zen; buru argidunik asko dituelarik hura ere ala zen. Euskararen onak bazazkien, baño euskaraz itzegiten nagusi. Aho ederreko euskaldunik baldin badire, hura leenetarik.

Ogei ta bospasei urte baditu il dena ezagutu nuela Elizondon. Euskal-Esnaleak antolatuz euskal-egun batean aurkitu nintzen. Orduan, euskar-izlarik eznuen ezagutzen; elizako mintzaldiez besterik ez nakien.

Leenik entzun nuena Orkaiztegi jaun apez; itzaldi garratza egin ziguna; nolako zigorrak eman zizkigun euskaldun letraduneri! bereziki, bera bezalako jantzi beltzetan jantzen direneri, ots, apez jaunen gain eman zuen euskararen galtzea. Nik eznuen ordu artio Orkaiztegi zena ezagutzen; baño itzaldi arekin nere barne guztiari inarrosaldi gaitza eman zidalakotz, etzizaidan beñere gogotik ezabatu apez agurgarria en irudia.

Gero, mintzatu ziren beste bizpaurur apez, iruak ederki, euskararen onak goratuz. Azkenik agertu zen mutil gazte eder bat, eta apaña, musu garbi zuria eta begi-begikoa. Asi bazen asi, guztiok bereganatu ginituen. Hura itzegiteko erraztasuna! hura itzegiteko aberastasuna! zer aho ederreko itziaria! baño guztien buruan aren itzak borobiltzeko garbitasuna!

Orduan, gazte begiko hura baitan ezagutu nuen Mujika-tar jauna: eta geroztik, zenbat eta zenbat aldiz oroitu naiz leenbiziko aldiz entzun niolarik, arriturik, begi-anditurik utzi nindula, ustez eta etzela hura baño itzlari bikañagorik. Ogeita bospasei urtez, arek egin dituen lanak, euskalerrriari, euskarari eta euskalduneri buruz!

Azkenik Euskal-Esnaleak, orduan utsegiñik, esan zidan neregain artzeko orai duela iru urte, udazkeneko mintzaldietarik bat. Eta ni an aurkezteko egin zigun itzaldi bat, ezin geiago polita. Ain polita non ta nik nere itzaldia asi baño leen, esan bear izan nituen itz hok: «Mujika «Jaunaren itzaldia entzun eta, auxe gogoratu zait; idazti edo gutunetan «oi da, norbaitek itz aurre edo aitzin solas gisaz zerbait esatea liburuaren «gaiari buruz edo ari doakon zerbait, eta batzutan gertatzen da, gutunaren zati oberena, mamitsuena, Itzaurrea.

«Hori bera gertatzen zait nere mintzaldiarekin; itzaurrea, edo Mujika jaunarena dela zerbait, eta nereaz ezzerre».

Idatz Leiaketa, euskaraz

AURRENTZAKO ELIZONDON

Nafarroa'ko Diputazioko «INSTITUCION PRINCIPE DE VIANA» deitutako Batasunak Baztan'go Balleko Etxearen laguntza osoarekin, euskerazko idatz-leiaketa, edo iskribitzaile konkurso bat antolatu du.

Leiaketa edo Konkurso hori Baztan'go mutiko eta neskatikoendako izanen da, eta hortan sar daitezke zazpi urtetatik amalau bizkitarteko aur baztandar guziak. Sorgin kontu, ele xahar edo bertze zerbait holako gaiari buruz idatziko dute eta guttinetik ehun (100) itzekin osotu beharko dute bere lana.

Lan guziak Elizondo'ko Ize-ta yaunari igorri behar dira eta epea Sanferminen artio izanen da.

Epaimaikoak edo Juradukoak «INSTITUCION PRINCIPE DE VIANA»-ko yaun euskaltzaleak izanen dire.

Iskribitzaileek sari onak izanen dituzte eta ezta inor geldituko bere saritxo har-tu gabe.

IKASI, MIKASI...

Joshe ta Joshepa

Gipuzkoako erri eder batetik bidalita, artu izan det karta bat. Ara emen, zer dion:

—"A. Astiz Arregi, jaun agurgarria:

Beorren aideak emanda, leitzen ditugu illabetero "IKASI-MIKASI" n dakazkin kontu irakaskor eta politik. Gu ere —nere emaztea eta n:—, Naparroan jaioak eta euskaldunak gera. Gure zazpi semiai ere, euskeraz erakusten diegu; biñepin gure etxean ez da euskeraz besterik itz egiten. Orain, mesede bat eskatu bear diogu. Jarri beza "PRINCIPE DE VIANA" n, beorrek dakin bezala, artikulo luze-luze bat, laugarren mandamentua esplikatu, baño kontu eta ejemplo askoekin...

JOSHE TA JOSHEPA

Pozik erantzutera noaie Joshe ta Josheparen idazkitxoari, ez artikulo batekin, baizik iuekin. Ara, emen, iru artikuluuen izenburuak:

—JOSHE TA JOSHEPA = Senar emaztien egin bearrak.

—JOSHE TA JOSHEPAREN SEMIAK = Semiak nola azi.

—JOSHE TA JOSHEPARI = Aite ta amari zor zaiena.

Gaurko, naiko izango det lendabiziko gaiarekin.

• Zuek, Joshe ta Joshepa: uste det gogoan idukiko dituztela, ez kontzako egunean aditu ziñuzten itz auek:

—«Zuk, senarra, maite ezazu zure emaztea, Kristok Eliza maite izanik, arengatik Bere burua eman zuen bezala».

—«Zuk, emaztea, Jainkoa ez bada, ez duzu inor maitatuko zure senarra ainbeste».

Maiz xamar, ezkongaietan, itxurez biñepein, maitetasun aundia dutela dirudi mutillek eta neskatxek. Idi zarrak bezala, bakarrik txutik ezin egonik, batek bestiari bultzaka dabilte bide baztar eta karriketetan. Iruñen ba'zen bide bat, non ezkongaiak paseatzen zuten, izena zuena: «GEZURTEGIA» («EL MENTIDERO»). Iruditzen zait, askoren maitetasuna, estaziotan saltzen diren «bokadilloak» bezalakoa dela. ¡Eiz-zakuraren mingaña alako urdai-azpiko pusketa kanpoan, eta barnen deus ez...! Naiz egizkoa izan maitetasuna, oztu daiteke denboraz. Sua, egur pusketa bat noizpin bein botatzen etzaionian, iltzen den bezala, maitetasuna ere oztu daiteke. Kontuak eta ejemploak nai dituzuten eskero, banaka batzuek aipatu bear dizkizutet.

Lendabizikoa leitu nuen Benjamin Franklin Ameriketako gizon jakintsuen liburu batean. Ba'zituen gizon onek bere baratza lantzeko, lan-gille batzuek, geienak beti bekain illunekin etorri eta joaten zirenak. Baño ba'zen bat, egun guztian kantari egoten zana.

—«¿Nondik duzu ainbesteko alaitasuna?» — galdetu zion Franklinek.

—«Nere zoriontasun guztia — erantzun zion —, zor diot nere emazteari. Ez da munduan nere emaztea bezin emakume oberik. Goizero, ni jeki baño lenago, prest dauke nere gosaria. Berak, leiotik begituta, ematen dizkit egunero ofetako ta jantzi egokienak. Gero, musu gozo batekin, azkeneko konsejuak: ¡Zarditzen ba'zera, kontuz ez ozteakin! ¡Eztaite jarri busti lekuan!, eta, ola. Etzeratzen naizenerako, beti arkitzen da atarian, gure seme guztiakin, arpegia ongi garbituta eta kalparra txukun-txukun orraztua: — ¡Nekatuta egongo zera, gizagajo ori! ¡Bela aldutuko zera, eta bela afalduko degu! ¡Zuek, semetxoak, eman pa zuen aite maiteari! Ni garbitu ta aldatu baño lenago maien gañen dago guztien afaria, ta ¡zein ongi ta txukun prestatua! Ni ez nago inon, etxian baño pozik. ¿Zetako joan tabernara? Noizpin bein, igandetaz eta, egualdi ona bada, gure bazkaria saskithoan deamagula, joaten gera guztiok mendira egun osorako. ¿Ba-diteke, mundu ontan, zoritasun aundiagorik...?».

• Zu, Joshepa, ¿ola portatzen zera zure senararekin? Uste det, baietz. Kontun iduki, ainbeste ta ainbeste gizon, etxeko gozamaña galduta, tabernara joaten ba'dire egunero, beren emaztien zabarkeriagatik dela... ¿Zer egin bear dute gizagajoak, egun guztian lanian egonda, etxea buruz bera arkitzen ba'dute, sua ixiki gabe, ta aurrak mukia dariotela...?

• Ta, zu, Joshe, ¿maite duzu ¡oraindik ere! zure emaztea? ¿Edo zure alabak pinpirin politik bezala dabilzela, ez duzu ajolik zure emaztea ekustera ago guztia maskalduta eta lastail-zaku zarra alako soñekoaz jantzita? Au egi ballitz, etziñeke kristau ona izango, ezta euskaldun ona ere.

Orain, kontu zagan beste gertaketa bat, non ekusten den zer indarra duten maitetasun egizkoa den etxeetako emakumeak.

Istori zarra da, 1.140'ko urtean gertatua.

Konrado III'a, Alemaniako Enperadoreak, inguratu ta azkenian menperatu zuan Weinsberg'ko ziudadea. Soldadu asko il zizkiotelako, asarre bizian, agindu zuen ziudade artako etxe guztiari su emateko ta gizonzko guztiak ezpataz iltzeko. Bakar bakarrik, aldendu zitezken emakumeak, nai zutena bizkarrean zeramatela. ¿Ze eramango zuten, gaitxoak? ¿Etxeko trastiak? ¿Zuten diru eta janaria? ¡¡Ez!!! ¿Ze egin zuten, bada? ¡Emakume bakotzek artu zuen bizkarrean bere senarra, bere aita, edo bere anaia, eta ola agertu ziren ziudadeko atarian! Soldaduak etzieten utzi nai alde egitea, baño Enperadoreak ikusi zuenean, esan zuen:

—«Nik esan detana, bete bear det. ¡Emakumeak ola maite dien gizonak, merezi dute bizitzea! ¡Ditezela, al badute gizon bat edo bi eramanda ere!».


• Joshe ta Joshepa: gaurko naiko izango da. ¡Maita itzazute elkar! Ori Jainkoak agintzen dizute. Gañera, ez dago beste biderik, mundu ontako ta zeruko zo ientasuna iristeko. Zuek ezkendu ziñeten, semiak zerurako azitzeko. Semiai, sermoi luzearren orde, eman bear zait EJEN-PLOA.

¡Ekus zatela, nola Jaikoa maite dezuten, nola elkar maite dezuten eta nola al dezuteneraño saiatzen zeraten bera zeruko bidean jartzen!

A. ASTIZ ARREGI

PILOTARIAK

Yoan den Mayatzaren 11'ean Donostia'ko Anoeta pilota lekuan ari izanak dira, Retegi nafartarra eta Azkarate bizkaitarra esku-huska ta buruz-buru. Dakizuten bezala partida hau España'ko Txapelketako «semifinala» zen. Partida honek izan du arraketa, Anoeta bete bete yendez eta denak gudukaldi eder bat ikusteko nahikeriarekin. Partida asmentan trabesak erasundarraren zauden 200-110 ri uyu egiten zutela. Lendabiziko tantoa Retegi'k egin zuen baina Azkaratek berehala berdindu eta bai bere alde bertze puntu bat gehiago ere 2-1. Gero adosteak bigarrean eta irugarrean ta ondok Azkarate zuzen zuzenean zazpigarreneraño 7-3. Trabesak berdinean 100 duro Azkarate'n alde, baina etzuen aunitzik irau. Retegi indarrean dago eta zortzigarren tantoan ados. Orduan trabesak erasundarraren alde 200-80'ri. Gero Retegi'k aintzinaldia harturik ogeitabigarren tantoa erdietsi arte Azkarate amalaugarrean utzirik 22-14. Retegi garaille.



hor agertuko duela baina Retegi ere ezta atzean geldituko. Azken-Partida honek bazter guziak inarrotziko ditu eta Bergara'ko plazan egiten dituzten uyuek ta esku-zartak Azkoitia'n eta Erasun'en adituko dira.

Retegi'k bere ahalmenak erakutsi ditu eta bizkor dago, partida ederra egin du eta napartar pilotazaleak kontent daude. Azkarate'k ez du partida txarra egin baina Retegi'ren kontra bere ahalmen guziak utsetan gelditu dira, gañera erasundarra elorriotarra baño gaitagokoa da (25 urte) eta goiti doaie ta Azkarate berriz (33 urte) hoberen guzia emanik eztago lenagoko negurrian, halare bizkaitarra ongi dago eta oraindik sasoi ederrean.

Orai Retegi Atano'ren kontra Azken-Partidan. Pilotarien kondairan lenbiziko aldia da napar batek finalean yokatzen duela, orai arte gure eskualdeko pilotariak ez dute orailako ohorerik ardietsi baina oraingoan Retegi erasundarra hemen dago napar euskaldunen izena leku onean jarri nahiez. Atano txapel-dunak eztu amor emanen eta gogor ariko da bere yakitate guzia

elbetarrak, Danboriena ta Maisterrena lekuztarren kontra. Partida hau ere arras atakua izan zen batez ere ogeitamar tantoraño, gero elbetarrek nausitu ziren eta partida airez aire irabazi 40-33. Galarregi anaiak ongi aritu ziren eta laueta hoberena Alejandro elbetear mutiko gaztea.

Txapelketaren gora-berak hemen:

Lehen mallakoak. Txapel-dunak: GARMENDIA ta SAGASTIBELTZA. Elizondarrak.


Bigarrenak: TXATXIN ta PLAZA. Elizondarrak.

Bigarren mallakoak. Txapel-dunak: GALARREGI anaiak. Elbetarrak.

Bigarrenak: DANBORIENA ta MAISTERRENA. Lekauztarrak.

Zortzi pilotariak edergailu onak eskuratu zituzten. Txapelketak izan du errekte eta yendea kontent dago.

MARIANO IZETA



MINDEGIA

Mayatzaren 11'ean Tolosa'ko «Beotibar» pilota lekuan, bigarren mallako aizkolari txapelketa yokatu zuen. Lau aizkolari aritu ziren, Mindegia Ezkurra'koa, Leitzatar Zabaleta, Azpeiti'ko Arriya III eta Mendar'ko Kortaberri. Txapelketa honen punturik interesgarriena zen, bi lenbizikoak aizkolarien goi-ma-

AIZKOLARIAK

llara igotzeko modua izanen zutela, eta bi lenbizikoak bi naparrak izan dira.

Egin beharra zuten lana hauxe zen: Sein onbor 60 ontzako eta bertze sein kana-erdiko.

Hemen txapelketako auzia nola gertatu zen:

Irabaztale ta Txapel-dun: MINDEGIA. 44 minutu ta 45 segundo.

Bigarren. ZABALETA. 46 minutu ta 44 segundo.

Irugarren. ARRIYA. 52 minutu ta 38 segundo.

Laugarren. KORTABERRI. 56 minutu ta 52 segundo.

Zorionak Mindegia txapel-dunari

eta bai Zabaleta bigarrenari ere, orai biek aizkolarien lenbiziko mallara iganik bertze aundi hoiaren artean borrokaldi ederrak egiten dituzte.

Ez omen zen yende aunitzik bildu Tolosa'ko plazan.

ANZANARRI



ERRIZ - ERRI



SALDIAS

UMEAK ETXETZ ETXE GAZTAIN XIMALAK BILTZEN

Ostegun Santu atsaldetan, Meza ondoan or atera ziran erriko ume guztiak etxetx gaztain ximalak biltzera, aspaldiko oitura den bezala. Etxe bakoitzeko ate aurrean ola abesten (kantatzen) dute:

Andreak elizera,
gizonak tabernera,
apezak beren ofiziotara
bota bota gaztain ximalak.
gaur egun egun
biar Pazkoa,
etzi ezkontzen da
etxe ontakoa.

Erderazko itz batzuek ere abesten dituzte: «Aguira aguirando, aqui estamos, kantaremos dos, una limosnita por amor de Dios».

Etxe guzietan zerbait leiotik botzen diete. Aurten Martinisakeok bakarrik bota omen zikieten gaztaiñak. Pensatzen dut aspaldiko oitura dela umeak egiten duten ori eta denok alegiñak egin bear ditugula irauan dezan.

EGUALDI KAXKARRAK

Gure nekazari maiteak estu ta larri ikusten ditugu. Lanerako egoaldiak batere ez laguntzen. Egun bat ateria egiten baldin badu, urren zor-tzi aldian euri xir-xir botatzen ez gelditzen. Oraindik ia alor denak osorik daude. Badira patata pixken bat erein dutenak. Ontz gañiera otz egiten du eta soroetako belar ezdira batere azitzen. Igazkoak akituñak, eta berririk ez ateratzen. Orregatik beste urte batzuetan baño gaizkiago dabilz gure nekazariak.

Ia laixter egoaldi onak asitzen ote dituen, gure nekazari kementsuari begia argitzeko.


LEHENDABIZIKO SARIA

San Jose Langillearen egunean, Argiñeneko bordako Mikel eta Erroxarrik jaso zuten Iruñean jaiotako umiengatik eman dieten saria. Naparra guzirik, lehendabiziko saria bezala, berexia zegona, izan da biok artu dutena. OGEI TA AMAR MILLA PEZETARAÑO irixten da sari ori.

Mikel eta Erroxarrik amabost seme-alaba izan dituzte. Beuren argazkia (erreturua) «DIARIO DE NAVARRA»-n etorri da. Zorionik biotzekoenak ematen dizkiegu eta elkarrekin urte askoz bizitza de-saiatzan diegu.

ERRIKO GORABERAK

Ez dakigu, «Bien-ke-bien-ke», gure bide zabala pixkoat moldatzeko ordua noiz izan bear duen. Dena ondatzen ari da. Gezurra iduri du. Ez dago dretxorik gauzak egin ta ola idukitzean. Ez dakit laixter lera-rik ere pasatuko den. Itz eder asko entzuten dut bazterretan, baño egite on gutxi ikusten. Bear bada erri-



BAZTAN

BESTAK

Salbatoreak igaro ziren eta iruritarrek beren herriko bestak ospatu dituzte. Aintzineko urtetan bezala aurten ere yende aunitz bildu zen batez ere ortzegunean eta igandean. Urtero bezala Salbatore egunean Meza Nagusi ederra eta meza ondoren herriko plazan euskal-dantzak. Erreboteko partida, esku-huskakoa ta bizikleta lasterketa ere izan dute eta azkenengo egunean ikusgarri polit bat izan ginuen, Baztan'go dantzarien arteko fandango txapelketa edo dantza laxoan zein hoberena. Xapelgo hontan bortz bikote ari izanak dire eta dantzarien aitaldia aski gustagarria izan da. Juradoak bere erabakia hartu ondoren auzia gisa hontan moldatu zuten:

Irabaztaleak eta Txapeldunak: MARITORENA-GOÑI. Arizkundarrak.

Bigarrenak. Dorregaray-Azkona. Iruritarrek.

etan gaudenak auntzaren gaberdiko estulak baño gutxiago balio dugu. Zerbait esateko beñipein ezditugu falta.

Erritik baserrietara, egiteko eratu dagon bidea, lozorro luzean segitzen du. Lerenbaitlehen esnarazi bear litzake. Gu amarraiak jan nai ditugu, arrantzan batere ibilli gabe. Denek geiago elkartzuz, zerbait egitera saiatu bear genduke.

Irugarrenak. Elizetxe-Antxordoki. Erratzuarrak.

Laugarrenak. Iturriria-Meoki. Lekaroztarrak.

Bortzgarrenak. Soule anai-arrebak. Arizkundarrak.

Gaztetxoak ere beren txapelketa izan zuten eta zein-gehiagokoa hontan neskatiok bakarrik ari izanak dire. Zazpi neskatiok bikoteen artean Lekarotz'ko neskatiok irabaztale.

Huna hemen dantzarien gora-bekak:

Lehibizikoak: MARI JOSE GOÑI ta MARI KARMEN IRIBARREN. Lekaztarrak.

Bigarrenak. Almandoz-Sarasola. Elizondarrak.

Irugarrenak. Torres aizpak. Arizkundarrak.

Eta hoiien ondotik bertze gañerako guziak berdin. Irabaztaleak eta bertze gañerakoek ere sari ta edergaillu onak eskuratu zituzten eta denendako esku-zarta aundiak izan ziren.

Plazan soñu ederra eta gazteria naiko dantza eginik munduko aferrak ederki antolatu ditu. Irurite'ko bestak igaro dira eta orai Arizkun'goak eta Erratzu'koak datorzkgu.

M. I.

JENDEEN AHOTAN

Jose Manuel "URTAİN"

Amabost gualde edo burrukada. Hau. hor. hemen. Amabost burrukada, ta beralaxe, amabost lurtean «K. O.»-z. Amabost aldiz «URTAİN» garaille.

Zoritxarrez, dena geiegiztu beharrean ari gera, ta askotan, gauz ta egite guziak dauzkaten nehurriak gerizpetu ta ankape-tuak arkitzen dira.

Hau da Jose Manuel «URTAİN»-en gertaketa. Ezin ukatu leiteken egia da amalau aldiz bestea lurrera bota duela, ondo «masakillatua». Baño hon-tatik esaten dutenaño badago ezertxo, noski.

Gure mingañoak atsegiñerik gabe dabilz lanean. Ta ari gera «chau —tori— tora» (nere errian esaten dugun bezela), so-lasean.

Alde guztietako uste edo iduriak arkitu lezazke. Batzuetan, «URTAİN» ez omen ezertxo. Besteak, gizon izigarria dala diote. Badira, gutzi baño, badira ere esaten dutenak puxkada bat egin duela, ta askoz geiago egiteko hida ta garaia iritxia daukala.

Nor dabil zuzen?

Ezdira erri ta ostatu zokoetako usteak besterik. Denborak esamen digu noraño juan leiteken gure «URTAİN». Artean jarraituko da jendeen arteko solas-sukarra. Ta mingañoak, berriro ta milla aldiz berriro, garaituko dituzte nehurri guziak. «URTAİN» goratua ta ankape-tua izango da jendeen mingañoak.

Begira: danok aitortuko duzute, izketan asteko, jakin behar dala izketan. Bestela edo ixildu, edo nehurtu argi zure itzak.

Holaxe izka edo diskusione bat asi ta azkenegia eramateko, edo lehendabizi ezagun zazu gaia, ta jakin ezazu gauza ondo eramaten, besteen iduriak onhartuaz, edo asarre ta burrukadan bukatuko da izkaldia, denbora alperrik galdu ondoren.

Bai, ezagutu ezazu, lehendabizi, gaia. Juan zaitz ezertxo ulertu (entenditu) gabe, astoaz hotako zaituzte ta. Jakin, baita, diskusionea eramaten; entzun besteen arrazoiak, ta gertu egon zuz zereak aitortzeko. Bestela, adiskide, bestela obeto: ixildu zaitz!!

Hau ulertu ta aitorturik, etorri gaitzen Jose Manuel «URTAİN» gaiara. Ta egiak arkiturik, deus egin ezduela esateak lekuri ez-dauka. Amairu burrukada irabaztea ezertxo beintzat bada.

Horain, hemendik aurrera dena antz jarraituko dala, hori beste bidexka bat izanen litzake. Gaur arte «URTAİN»-en ukabiletan ikusi dugunaz, biharko egunean ezer izango ote dan, trebetasuna ematen digu. Baño ulertu ondo: «ezer izango OTE DAN», esan dut; ez, «izango DALA». Hori iñork esan ezin lezake.

Horain arteko bere aurkakoak (kontrarioak) aulak izandu direla? Ez dizuet ukatzen. Egia da gure «URTAİN»-ek ezduela koxka aundirik arkitu amabost haletan. Ta, hor bota ere! Ikusi, lurtean! Benetan, aulak ziran. Ta halakoak behar zituen ere. Bere maillakoak. Edo ...GIZON AUNDIAK ALA JAIO ZIRAN BA? BIZKOR TA XABLIAK, JAIOTZETIK BIZKOR TA XABLIAK OTE? Ez. Ezdut uste. Poliki, poliki juan ziran igoz. Oñarriak gerturik, orduan etxea gora. Benetako mailetatik asirik, gora, arteko maillak garaituaz.

«URTAİN»-en horain arteko aurkakoak bere maillakoak genituen. Bere maillakoak, izenez beintzat; indarrez ez dirudi. Gaur arte iñoz ikusi ezdana, ukal-burruka edo «boxeoan» asi-ta, amabost lehendabiziko burrukadak irabaztea. Horain arte ezda halako «markarik» eskuratu. «URTAİN»-ek bai. Horra or. Zer?

Teknikarik ez omen dauka. Baño, esaten nuena: gizon aundiak etziran jai. Gero aunditu ziran. Hala, Jose Manuel asierale bat besterik ezda. Eskuratuko al du beharrean arkitzen dan teknika hori? Ta ordu hartan, garaille jarraitzen badu, ezdu irabazi indarrez bakarrik, denaz baizik.

Hartan, Jose Manuel «URTAİN» boxeolari aundi bat izango da. Ta halaxe aitortuko dugu.

Artean, itxoin. Goratu edo menperatu baño lehen, arrazoi zintzoak euki ditzagun hartarako.

Ta gauza nola dijuan jarraituaz, jakin mintzatzen; jakin izketan. Bestela, berriro diot: IXILDU ZAITEZ!

ANTHON ERKIZIA



España'ko gizonik indartsuenak Euskalerrian daude

España'ko Telebisionek Txapelketa bat antolatu zuen España'ko Gizonik sendoen eta bizkorrenak izendatzeko.

Txapelketa hortara amairu gizon etorri ziren eta hauen artean indar agertzeko saio batzuk egin ondorean bi lenengoak Euskalerriko semeak izan ziran.

España'ko lehenengo gizonik indartsuena Zumai'ko seme den Jose Manuel Aguirre Eizaguirre da giputze beraz, eta Bigarrenena Sesma'ko Jose Luis Palacios Soroa seme dena, Naparrokoa alegia.

Biei gure txalorik sutsuenak.



AGUIRRE



PALACIOS



KUKUKA

Mutikoen arteko BETE nor izango jakiteko, haletako batek, bere inguruan, biran dauden bakoitza ukituaz, itz habek esaten ditu:

Dobela dobela
Kina kina
Eskola erregina
Konsedina
Bina bin
Beko argin
Sala manka tripili trapala
Aingeru guarda. Paratidama.

Azkeneko itz-puntta (MA) tokatzen zaiona izango da BETE. Hau orma baten kontra jarriko da, baiña bere inguruan zer gertatzen den ezin ikusi ahal izateko eran.

Eta gañerako mutikoak, baxotxa bere xokoa izkutatzen diran bitartean, BETE dagonak izkimizki habek esango ditu:

Kuku miku xaldariku
Txoriak umeak egin ditu
Non, non?

Aritzaren galdurruan Tin-tan, bazinate? Ein eztena bera bete.

Beste izki —mizki batzuk badira: Kiriketari, koroketan Eperrak xokoetan Aingirak konketan Bazaote?

Ein eztena bera bete. Izki-mizki hoiene ordez, batzutan beste habek ere esan oi dira:

Kiriketan kaiku
Portua zeli, zangoa mee,
Lepoa lodi, kuku bada?

Bukatu ta, «Uh-uh-uh»!! erantzuten dio, eta bat ikuskatzen duenean (BETE dagonak) KORTE BAT! oi egingo du, eta KORTE BI!, bi ikuskatzen baditu.

Beste iñor geiago ikuskatzen jarraitu nahi ezbadu, azkeneko ikusi duenaren izena esanarekin batera, KORTE ETA BETE! oi egingo du.

Ikuskatuaren izena oker ematen badu (Kontramintzo), oi egingo diote eta berak jarraituko du BETE EGONEZ, naiz eta beste izen batzuk zuzen esanak izan arren. Billaketa luzea baldin bada, iz-

kutuan daudenak jokoak amaitu dezakete (Kurikitua), oi egin eta gañera irrintzi alaiak botatzen dituztela. (gai beretik gero ere)

ETXEAN EDER AINTZURRA

Joko au Urdazubin (Urdax) bildua da. Bete bat aukeratzeko leen aipatu ditugun eraren bat erabiltzen da. Bete delakoaren inguruan daudenak pareak eta bat geiago izango dira; eta danak batera auxe kantatzen dute, elkari esku eman eta biraka (inguruka) dijoazten bitartean:

- 2) Artzain zanga-makurra
- 1) Etxean eder aintzurra
- 4) Engantzera bere ama.
- 3) Herri huntako historien partez.
- 6) Bakotzak arrapatzera.
- 5) Heken gainean, hoken gainean.
- 7) Bere laguna.

Azkeneko itza (laguna) kantatu bezain laster, bakoitza lagun bateri eltzen saiatuko da, eta bakarrik (lagunik gabe) gelditzen dana izango da urrango Bete, jolasa (Josteta) berriro asiaz.

A. APAT ETXEBARNE

«Nere Lurraldetik»

(1^o garren orrialdetik)

roa gogoratzen duen baztertoa, sorterrria da; ta bere oroi ta amets urdiñetan murgil erazten naun biartean merezi du Aberri izena. Bes-tela ezin dezake lortu...

Bere idatz lan trebean eraturtako Olerkirik politenak aurtzaroari eskeñi zizkion:

—Zure billa noan bakoitzean, Bilbo, aurr kabi, lenengo egazka ekin nuen txoko maite, aurren urteak orlegitzen zaizkit, oroimen, pozkari ta itxaropen darioa.

Etengabeko udaberria!

Zu zera nere amets zoroen iturritxoa.

(Au ez da zatitxo bat besterik). Mendizorrotz aiek zaindutako erri zoragarri artatik irten gabe zegoen. Baña irten bearra eldu zitzaionean, biotza minbera zan. Au danori gertatzen zaiguna da:

—Begien aurrean daukat, lenengo aldiz nere Bilbori «agur» egin nion une larri ura; Madrid aldera ikaskintzak egitera joan nintzan eguna, orduan amasei urte neuzkan. Orduña'ko arkaitza igarotzean, eundoko naigabea jabetu zan nigan. Aiek sastadak! Nere erri maitea atzean uzten nuen... Nere odoloko idazlarie maitatzen erakutsi zidan «Euskalerrri» ura. Bai, MAITATU esan dut, lur ura orduan benetan maite nuelako, Bilbori, ordea, biotzez nai izan nion. Ari gaur ere erdizka nai badiot, sinistuta egon, bere alderdi baten ibilli naizelako, ikutu diotelako dala.

Egunen joan-etorritik aukeratutako ikuskai paregabeakin ornitzen ditu bere auzoko giro ta oiturak: Artetale'ko azokak, auetan ez ziran palta atsoen arteko erriertak, apaingarri bezela, askar adizkidetzen baziran ere. Sagardotegiak, edari aparatsuarekin batera eukitzen zituzten alkar izketa goxoak. Pillota jokoak, ikusteak begiak irten bearrean. Ta nola ez? Erromeriak, zoriñoneko erromeriak! Unamuno sarri iraultzen da gai ontara, baztertu ezin balu bezela... Esan leike urtzen zegoela auengaitik. Ara zer dion «S. Marzial'go erromeriari» buruz:

—An ez dago beltz ta zuririk; gizonen ergelkeriari arte labor bat egiñaz, danak ontzi ber-beratik edaten dute; eguzkiak ere, zuzko txingarrak bidaliat, bere jaia adierazi nai die. Inork eten ezin litzazkan korapilloak sortzen dira. Danok anai. Penak legortu ta burni-erdoia



Miguel de Unamuno'ren irudia. J. L. Kruzelegi jaunak egiña. (Vazquez Dias pintorem jamatutak egin zuen erretrato batetik artua. Bilbo'ko Museoa dagona).

bezela erortzen dira... An dana alaitasuna da, odeiz estalitako zeru goitik, ibar ta ubidez ebakitako lurgaineraño.

Auresku! Au da menditar bizkorren dantza. Txistu aide garbiak entzuten diranakin batean, asten dira dantzalariak; lepoan zapiak loturik, aurpegiak dizdir, txinpartaka begiak. Guztiak auts artean brinko ta oyuka.

Liburutxo au orixe da: erriñeñeko eresi bat, esker ta oroi nahasi. jaiotzen ikusi zion lurrari.

Baño esan nezake, zerbait berezia, onura aundikoa palta dala idazkai au zearo osatzeko; bada zer edo zer euskaldunok aiñ arri daukaguna, gure nortasunaren ezaupide dalako: Gernikako Arbola. Unamuno ere gazteik joan zan Zugaitz adartsu onen keizpera. Entzun dezaigun:

—«...Nora noa? Lenbizi Arbola ikustera. Arrizko alki aietako baten eseri, ostrozabal batzuk artu ta «Guernicaco arbolaren orriyak» ipiñi nuen beren gañean. Ondoren, alperrik malko tantan bat ixuri gabe, biotza ikara gabe, zelaitxo ura utzi ta Antiguako enparantzara bideratu nintzan...

GAZTE

URREZKO ESTAIAK

Apirilla'ren emeretzigarrenean ze-lebratu zituen apaiz egin zaneko berrogei ta amar urteak, «urrezko eztaiak», Larrañaga ta Lasa'tar Iñazio Gotzai (Obispu) Kaputxiñoak. Ixil ta apaltasun audienian egitea zan beraren naia. Ta, alaxe egin ere.

Guk, ordea. Naparroko euskal PRINCIPE DE VIANA ontatik jagurr! egin nai diogu. ¡Zorionak! biali nai dizkiogu. Bere apaltasun aundiari dagokionez, zertxo batean mintzen ba-diogu, barka deigula.

• Larrañaga'tar Gotzai jauna, oso ezaguna da Euskal-erri guztian. Errikoitasun aundia dauka. Gipuzkoa'ko ALDABA errian, «Muño-Zabal» baserrian jaia zan 1892'ko Urri-lla'ren laugarrenean. Bere guratso zintzo Migel ta Eusebia'ren gandik lau seme ta lau alaba etorriko ziran mundura; oietatik iru nai (bat gure Gotzai aundia) ta iru aizpa bizi dira.

Gazterik praille kaputxino sartu zan. Lenengo urteak Altasun egin ondoren, Iruñan bukatu zituen ikasketak nagusiak. 1919'ko apirilla'ren emeretzigarrenean eman zuen meza. Urte batzuez, Lekarotz'ko Ikas-tetxean egon zan irakasle. 1926'ko urtean ta berak eskaturik, joan zan mixiolari Txina'ko Kantsu aldeko toki urrutietara. Irailla'ren (buruilla) amarrean zan noski. Beste praille euskaldun batzuekin asi zan antxe mixiolaritzan.

• Euskal mixiolari aiek areindako azia, aunditzen ta ugaritzen zijoan. Lan aundia zan. Ordurarteko lan bikain ura aztertuta, examiñatuta, bearrezko zan izendatzea Bidal-Buruzagi edo «Prefekto Apostoliku» bat. Ta, ain zuzen, Aita Santu Pio amaikagarrenak, Larrañaga'tar Aita Iñazio izendatu zuen 1930'ko maiatza'ren 2-an. Eta 1950'ko



Hona hemen Aita Inazio Larrañaga Apezpiku edo Gotzai Jauna. Aldamenean Aita Murieta'ko Felipe maite zena.

garagarrilla'ren 25-an, amabigarren Pio Aita Santuak, Pingliang'go lenengo Gotzai autatu zuen. Shanghai uri-buruan (kapitalean) kontsagrata izan zan, urri'la'ren 1-an, garai artan Shanghai'en Nuntzio zegoen Riberi jaunak, gerora Españi'ko Nuntzioa izango zan.

• Lan bikaña benetan, Larrañaga Gotzai jaunarena, beste euskaldun mixiolari batzuekin batera. Bañan, laixter, euskaldun aiek landatutako zuaitz (arbol) eder ura moztua izan zan. Ainbeste urteen zear

egindako guzia, «uzta» eder ura, komunismo'ren igitaiak ebakia izan zan. Ez sabaira eramateko, baizik ta lurperatzeko. Ta, azkenean, kalbario luzea. Naigabe guzien «kaliza» edan-ta, dena Jauna'ren eskue-tan utzi-ta, andik alde egin bearra. Miñaren-miñez matsti ura umezurtz utzirik, etorri zan gure Gotzai euskaldun aundia jaiotzen ikusi zion lurraldera, Euskal-erria. 1953'ko uztailla'ren emeretzigarrena zan. Antxen, urrutietan, gelditu zan bere Diozesis maitea. Beragan beti amestetan, ezer jakin gabe.

Azken aldi ontan berri-pozgarri' enbat izan omen du zerbait jakin duenian berak egindako txina'tar apaiz sailtxo ura ZUTIK arkitzen dala jakin-ta. ¡Nola ez! Ainbeste neke, ezbear ta beartasunen tartean egindako apaizak galdu baziran, apaizgontzari UKO egin balieteke —jainbeste bortxatuak izaten omen dira komunisten aldetik—! nolako naigabea izango litzazkan Artzaia'ren txat. Bañan, ez; Jainkoaren grazia aiekin dago. Ta ala izan be-di beti!

• Apirilla'ren emeretzigarrena etzan Larrañaga'rentzat jai bat egi-tearren izan, baizik, Jainkoari esker-erak emateko. Bere inguruan bildu nai izan zituen berarekin batean Txinan mixiolari izan ziranak, meza «konzelebratu» baten bidez esker-erak emateko Jaunari. Itzaldia, Aita Olazaran'ek, Lizarra'ko Aita Illariok, alegia, egin zuen.

Igandean, ogeigarrenean, ta Go-tzaia'ren omenez, Donosti'ko, Erren-deri'ko ta Ondarrabi'ko gazteek «erri meza» abestu zuten. Meza au, txixtu, txun-txunta txalaparta'kin lagundua izan zan. Sagara ondoren, Donosti'ko gazte batek, arrantzale arropaz jantzia, «auresku» dantza-tu zuen aldre erdian. Meza ontan Bidani'ko Aita Ladislaok egin zuen bere itzaldia.

• Eliz-Agintarien aldetik ta beste askoren aldetik artu izan ditu «telegrama» ta zorionak. Dijoala gurea, naparro aldetik, ixilla ta apala, bañan «biotzkorra». Jaunak eman deiola urte luzetako bizia. Gotzai jauna, Eliz-Amak bear zaitu. Ta, Euskal-erriak ere bai. ¡Aurrera!

GORTARI TA UGARTE'TAR YON

ii ILL.... edo BIZI !!

EUSKALDUNAK NAHI BADUTE.... BIZIKO DA EUSKERA

«GURE ERRI BARNEAN DAGO ETSAIA»

(KARL LIEBKNECHT)

Euskeraren etorkizuna ez dagoala ez Parisen, ez eta ere Madrillen, esaten gendun gure azkeneko artikuluan.

Gure baitan bakarrik, euskaldunen baitan dagoala etorkizun ori. Euskaldunak nai badute, ezagutzen ditugun eragozpen guzien gainetik —aundienak izanikan ere— eragozpen guzien gainetik, euskera bizi eta gordeko dala.

Euskaldunak ez badute nai... euskera ilko dala.

Egun batez Karl Liebknecht aleman sozialistak itz oiek idatzi zitun: «...Gure erri barnean dago etsaia».

Eta guk, euskaldunak, itz oriek errepika gentzazke euskeraren etorkizunari buruz: «**Erri barnean daukagu etsaia**».

Egi-egia esan ori. Ortan ez dago zalantzarik, izpi baten ezbaierik.

Utzi ditzagun, beraz, bein betikotz, bai Paris eta bai Madrill dauden tokian, eta lotu gaitezen gure erri barnera.

Euskera salbatzeko...! EZ DAGO BESTE BIDERIK!

Guk nai badegu, euskera ilko duan Gobernurik ez da sortu: ez zigorez, ez eta ere laguntzaren eskasiez.

Euskeraren eriotz miña Parisen edo Madrillen billatzia... gure auleziaren seinalerik egokiena da, gure borondate eskasiaren agiri garbia.

EUSKERA ERI DAGO, ARRUNT ERI

Euskeraren berpiztea, beraz, gu baitan dago. Eta berpizte ortarako egin bear degun lana ahalik eta egokiena izan dedin, lenen-lenen jakin bear deguna da, euskera, naiz oraindano bizi, gaxo, arras gaxo dagoala. Azken urte oietan egin duan atzerakada ikusi besterik ez daukagu, ez bakarrik Elizondan, berdin Euskalerrriko erri guzietan.

Negargarri da, azken denbora oietaraino euskaldun izandu diran erri aunitzetatik igarotzea!!

EUSKALDUNAK EZ DAUKATE ERITASUN ORREN KONZIENTZIRIK

Baño euskaldunak ez daukagu eritasun orren konzientzi garbirik. Nola bestela ulertu, Euskalzaundiak eraturtako batzar batian, egun osua galdu litekela eztabaida gogorrian, euskera Hrekin edo Hrik gabe idatzi bear dan burrukatuaz!!

Iltzeko arrixkuan dagoan baten aurrian... kalera gorbatakin edo gorbatarik gabe aterako dan eztabaidatzera bezela da, Arantzazuko diskusio ura.

Edo, kixkaltzen ari dan etxe aurrian, eta etxia erretzen ari dan bitartian, guk berriketean denbora pasatzia... atian zakurra jarriko degun edo ez.

Ez, euskaldunak ez daukagu euskerak sufritzen duan eritasun orren ezagura garbirik.

Nola bestela iltzerat utzi ANAITASUNA bezelako aldizkari bat, bizzateko eskatzen zigun laguntza eskeini gabe...?

Gaurko egunian eta euskera gaur dagoan eran, euskaldunen jokabide orrek, ez du kanorerik.

Euskerak daukan arrixku ikaragarri ortaz euskaldunak ongi jabetu ditzuten, eta «nolako gaitza... alako erremedioak ipiñi ditzaten», ona emen guk baño garrantzia eta itzal aundiagua dituzten lekuko zondeit.

¡EUSKERA AGONIAN!!

Begira VIII Congreso de Estudios Vascos batzarraren erabakia: «...El VIII Congreso de Estudios Vascos, al estudiar la situación del euskera, no ha podido por menos de sentirse hondamente impresionado.

Sabíamos que nuestra lengua se hallaba enferma, pero no hasta el punto de encontrarse en agonía.

Esta la dolorosa realidad que nos hallamos obligados a anunciar a todos los vascos. Hace veinte años había 750.000 personas que le hablaban en las siete provincias vascas: actualmente no pasan de 525.000».

¡50 URTEKO BIZIA!!

Donostiako «El Diario Vascok» enkueta bat egin zuan orain dela urte asko ez dala, eta lenengo galdera zan:

«...Entiende Vd. que el vascuence se halla en trance de próxima desaparición...?»

Eta D. Pablo Ulzurrun, napartar euskalzale ezagunak erantzun zuan:

«...Si a la situación actual no se le pone remedio adecuado a corto plazo, naturalmente que sí: en cincuenta años».

Ori esan ordutik situaziua aldatu da: ¡baño txarrerria!!

¡ILTZEKO ZORIAN!!

Pio Caro Barojak Naparroako Euskal Batzarrean esan zuen:

«...Gu ezdabaitaka gabiltzan bitartian, euskera iltzeko zorian jarri zaigu...».

¡UN FOSIL O PIEZA DE MUSEO!!

Sueziako Professore dan Pierre Naert, aita Villasanterekin egin zuan elkarrizketa batian esan digu: «...El vasco corre un gran riesgo de quedar como un fosil, como una pieza de museo».

DR. HERNANDORENA
(gaiz beretik gero ere)